# KOSTALDEKO IBILBIDEA

Euskaditik igarotzean, E9 "Europako Kostaldeko ibilbidea" mendiko ibilbide luze (GR) gisa seinaleztatuta dago. Ibilbide hauekin bat egiten du: GR 121® "Talaia ibilbidea" Gipuzkoan, eta GR 123® "Bizkaiko Bira" Bizkaian.

# SENDERO LITORAL

*A su paso por Euskadi, el E9 "Sendero Litoral Europeo" se encuentra señalizado como sendero de gran recorrido. Coincide con el GR® 121 "Sendero Talaia" en Gipuzkoa y con el GR® 123 "Vuelta a Bizkaia" en el tramo vizcaíno.*




## GOMENDIOAK

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, botikina, mugikorra ondo kargatuta, dirua, dokumentazioa…).

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

## RECOMENDACIONES

*Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.*

*Planifica bien las etapas y adáptalas a tus posibilidades.*

*Lleva calzado y ropa adecuados teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, botiquín, móvil bien cargado, dinero, documentación…).*

*Respeta el entorno que visitas y al resto de senderistas.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Ed. 2025

Bidezatia / *Tramo*

# DEBA ▶ MUTRIKU

km 0 ··· **DEBA.** Debatik atera eta izen bereko ibaia zeharkatuko dugu XIX. mendeko harlanduzko zubi izugarritik. Berehala, kostaldetik Mutrikura doan pasealekutik aldendu eta Laranga auzorantz igotzen hasiko gara. Eskuinaldean karobi zahar bat topatuko dugu. Labe mota horietan kareharria kiskaltzen zuten karea lortzeko, eraikuntzan eta nekazaritzan erabiltzeko, bai eta osasungintzarako ere. Hemen agur esango diogu ia behin betiko Donejakue bideari, eta ez dugu berriro aurkituko azken etapara arte Euskal Herriko lurretan.

km 3,3 ··· **LARANGA.** Mutrikuko auzo honek hainbat etxe eta baserri ditu, Kantauri itsasoaren gainean zelai berdez estalita dagoen muino honetan barreiatuak. Haren ondotik pasako ez bagara ere, gertu dago Kalbarioko baseliza, "Kalbaixo" izenez ezaguna, tradizio handikoa eta inguruan oso maitatua. Haren argiak, ilunpetan urrutitik ikusten direnez, gidari ziren arrantzaleentzat, itsasargia balira bezala. Harantz desbideratzen da GR® 121 "Bizkar ibilbidea" Eibar eta Arantzazurako bidean. Gure ibilbideak aurrera jarraitzen du eta, berehala, Mutrikuko portu xarmagarria ikusten hasiko gara, senadi batean babestua.

km 0 ··· ***DEBA.*** *Salimos de Deba cruzando el río homónimo por el imponente puente de sillería del s. XIX. Enseguida nos separamos del paseo que conduce a Mutriku por la costa para comenzar a ascender hacia el barrio de Laranga, encontrando un antiguo calero a nuestra derecha. En este tipo de hornos se calcinaba la piedra caliza para la obtención de cal, utilizada en la construcción, la agricultura e incluso con fines sanitarios. Aquí nos despedimos casi definitivamente del Camino de Santiago que no volveremos a encontrar hasta la última etapa en tierras vascas.*

km 3,3 ··· ***LARANGA.*** *Este barrio mutrikuarra se compone de varias casas y caseríos dispersos que salpican esta loma cubierta de verdes prados sobre el mar Cantábrico. Aunque no pasamos junto a ella, cerca queda la ermita del Calvario, conocida como del "Kalbaixo", de gran tradición y muy querida en la zona. Sus luces, visibles desde lejos en la oscuridad, servían de guía a los pescadores, como si se tratara de un faro. Hacia ella se desvía el GR® 121 "Sendero Bizkar" en su camino a Eibar y Arantzazu. Nuestra ruta continúa al frente y, enseguida, comenzamos a vislumbrar, resguardado en una ensenada, el encantador puerto de Mutriku.*



Laranga

eu es

# KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

EUSKAL KOSTALDEA COSTA VASCA

6

## DEBA ▶ ONDARROA

Km 10,5 | 469 m | 3h 30´



E9

EUSKADI BASQUE COUNTRY

Debatik aurrera, berriz ere landazabal atlantikoa eta bere baserri sakabanatuak ikusiko ditugu, itsasoa atzean dutela. Etapa erdian etenalditxo atsegina egingo dugu Mutrikun sartzeko, arrantza-portua eta xarmaz beteriko harrizko kaleak ikusiz. Bizkaira iritsi baino lehen, Gipuzkoako kostaldeko ikuspegi ederrenetako bat opariturik digu Saturraran hondartzak.

*De Deba en adelante, continuaremos disfrutando de la campiña atlántica y sus caseríos dispersos con el mar al fondo. A media etapa se realiza un placentero paréntesis para adentrarnos en Mutriku, con su puerto pesquero y calles empedradas llenas de encanto. Antes de alcanzar Bizkaia, la playa de Saturraran nos regala una de las estampas más bonitas de la costa guipuzcoana.*

10,5 km | 469 m | 3h 30' | MIDE 1-2-2-3




### MIDE

1 Ingurunean arriskuak egon daitezke
*El medio no está exento de riesgos*

2 Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak
*Sendas o señalización que indica la continuidad*

2 Zaldibideko ibilaldia
*Marcha por caminos de herradura*

3 3 eta 6 ordu arteko ibilaldi jarraia
*De 3 a 6 horas de marcha efectiva*

### SEINALEZTAPENA
***SEÑALIZACIÓN***

GR® 121 + Lotura/Enlace

Ibilbidearen jarraipena
*Continuidad del sendero*

Norabide aldaketa
*Cambio de dirección*

Norabide okerra
*Dirección equivocada*



## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!


© Geoparkea

Mutrikutik Saturrarango hondartzaraino "zazpi hondartzak" deitzen zaion itsaslabarren gunea dago, Euskal Kostaldeko Geoparkearen barruan. Bere bitxietako bat, flysch beltza, ikus daiteke Saturrarango puntan.

*Desde Mutriku hasta la playa de Saturraran se extiende una zona de acantilados conocida como "siete playas", incluida dentro del Geoparque de la Costa Vasca. Una de sus joyas, el flysch negro, se puede observar en la Punta de Saturraran.*

Plaiko zubixe edo Txakur-txiki zubia, Ondarroan, 1927an eraiki zuen Bizkaiko Foru Aldundiak. Oinezkoentzako zubi birakaria da, itsasontziak Artibaiko itsasadarrerantz igarotzeko aukera ematen zuena. Jatorrian, ordainpekoa izan zen —bost zentimo zen prezioa, izena eman zion «txakur-txikia»—. Europan eta munduan kontserbatu den tipologia horretako bakanetakoa da.

*El Puente de la Playa o del Perro Chico en Ondarroa, construido en 1927 por la Diputación Foral de Bizkaia, es un puente peatonal giratorio que permitía el paso de barcos hacia la ría del Artibai. En sus orígenes fue de peaje —cinco céntimos, la «perra chica» que le dio nombre—. Se trata de uno de los pocos de su tipología que se conserva en Europa y en el mundo.*



## Bidezatia / *Tramo*
# MUTRIKU ▶ ONDARROA

km 5,2 **MUTRIKU.** Galtzada-harrizko kale aldapatsu batetik jaitsi eta portura iritsiko gara. Elizak, jauregiek eta oinetxeek interes ukaezina ematen diote arrantzale-herri pintoresko honi, eta merezi du patxadaz bisita egitea. Portuaren mendebaldeko ertzean egokitutako lehenengo igerilekuaren ondoan, berehala gora egiten duen pasealekua hartuko dugu, San Nikolas ermita eta talaia zaharrera iristen dena. Zati horretako erreferentzia kanpinak izango dira. Bi kanpin igaro ondoren, Saturrarango hondartzara iritsiko gara, Muga ibaiaren bokalean, Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugan.

km 9,5 **SATURRARAN.** Zubia zeharkatu ondoren, plaka bat aurkituko dugu, Saturrarango kartzela zaharrean (gaur egun desagertua) errepresio frankista jasan zuten milaka emakumeak gogorarazten dituena. Bainuetxe zahar bateko instalazioetan pilatuta bizi ziren, eta haietako asko gaixotasunengatik hil ziren, osasun-egoera eskasaren eta tratu txarren ondorioz. Talaia bideari agur esan eta Bizkaian sartuko gara. Etapa amaierara iristeko, hondartza hau eta Ondarroako Arrigorri lotzen dituen pasealekua jarraitu besterik ez dugu egin behar.

km 10,5 **ONDARROA.**

km 5,2 ***MUTRIKU.*** *Descendemos una empinada calle adoquinada que conduce al puerto. La iglesia, palacios y casas solariegas otorgan a esta pintoresca localidad marinera un innegable interés que bien merece una visita pausada. Junto a la primera de las piscinas acondicionadas en la orilla oeste del puerto tomamos el paseo que rápidamente gana altura alcanzando la ermita y antigua atalaya de San Nikolas. La referencia en este tramo serán los campings. Tras pasar dos, habremos llegado a la playa de Saturraran en la desembocadura del río Muga, límite entre Gipuzkoa y Bizkaia.*

km 9,5 ***SATURRARAN.*** *Tras cruzar el puente encontramos la placa que recuerda a las miles de mujeres que sufrieron la represión franquista en la antigua carcel de Saturraran, hoy desaparecida. Convivían hacinadas en las instalaciones de un antiguo balneario y muchas de ellas murieron por enfermedades a consecuencia de la falta de salubridad y los malos tratos. Nos despedimos del Sendero Talaia y entramos en Bizkaia. Sólo resta seguir el paseo que une este arenal con el de Arrigorri en Ondarroa para alcanzar el fin de etapa.*

km 10,5 ***ONDARROA.***


Ondarroa

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

- Debatik Laranga auzorako igoeran luizi bat izan da, eta, horren ondorioz, behin-behineko desbideratzea egin behar izan dute 2025ean.

- *En la subida al barrio de Laranga desde Deba se ha producido un corrimiento de tierras que ha obligado a realizar un desvío provisional en el año 2025.*

- Laranga auzoan, bitan banatzen da GR® 121 ibilbidea: "Bizkar ibilbidea" Eibar eta Arantzazu aldera doa, eta "Talaia ibilbidea", berriz, Saturraran aldera. Saturrarango hondartzaren eta Ondarroaren artean, non GR® 123 "Bizkaiko Bira" hasten den, itsaso ondoko pasealeku eroso batetik igarotzen da E9 ibilbidea.

- *En el barrio de Laranga, el GR® 121 se divide en dos: el "Sendero Bizkar" se dirige hacia Eibar y Arantzazu y el "Sendero Talaia" hacia Saturraran. Entre la playa de Saturraran y Ondarroa, donde comienza el GR® 123 "Vuelta a Bizkaia", el E9 discurre por un cómodo paseo junto al mar.*

## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Turismo bulegoak<br>*Oficinas de Turismo* | |
| Deba | 943 19 24 52 |
| Mutriku | 943 60 33 78 |
| Ondarroa | 94 683 19 51 |
| | 670 358 534 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

